Internet biztanleriaren sektore guztietara heltzen ari den hedabidea eta zerbitzua da. Zalantzarik gabe esan daiteke Internet oso tresna onuragarria dela gizartearentzat. Bertara konektatzen diren erabiltzaile gehienek oso esperientzia positiboak izaten dituzte, sarearen bidez erraz, merke eta eguneko edozein momentutan eskura baititute informazio ia mugagabea. Bestalde, Internet komunikazioaren, merkataritzaren eta giza-harremanen izaera aldatzen ari da. Bide horretatik, aro berria ari da sortzen Interneten eta horrek aukera berriak ematen dizkio erabiltzaileari.

{flv}segurtasuna1{/flv}

Aro berri horren isla dugu Web 2.0, erabiltzailea protagonista bihurtu duen tresna. Era guztietako jendearengana iristeko gaitasuna izan du: geroz eta jende gehiagok sortu du blog bat edo kontu bat sare ireki sozialen batean (Facebook edo Tuenti). Gainera, geroz eta gazteagoak dira sare sozial hauetara sartzen diren erabiltzaileak, jendea ezagutzeko aitzakia bakarrarekin. Eta horixe da arazoetariko bat.

Gaur egungo gizartean asko dira IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) erabiltzen dituzten gazteak, baina, gutxi dira tresna horiek dakartzaten abantailak ezagutzeaz gain, sor ditzaketen arriskuen jakitun direnak. Garrantzitsua da saretik jaso edo bertara kargatzen dugun informazioaren aurrean zuhurrak izatea eta teknologia hauek egoki erabiltzea . Erabiltzaileak gutxieneko neurriak hartu behar ditu norberaren segurtasuna arriskuan ez jartzeko. Ezinbestekoa da, gainera, horretaz ohartaraztea eta horri buruz hitz egitea. Baina ezinezkoa da, ordea, horrek dakartzan arriskuak ez ikusiarena egitea.

Gazteen eta sare sozialen inguruko ikerketa bat dago Britainia Handian; emaitzak **Security by Default** blogean azaltzen direlarik. Irakur ezazu sarrera eta horri buruz duzun iritzia zure blogean plazara dezakezu.

Web 2.0 eta sare sozialak oso onuragarriak dira, eta ez digute zertan inongo arazorik ekarri segurtasunez eta errespetuz jokatzen badugu.